



Asier Uribe, Donibane Lohizuneko frontoian, zesta-punta eskolako entrenatzaile lanetan. Isabelle MIQUELESTORENA

infraganti ASIER URIBE

Euskal errefuxiatu baten seme izanik, Parisen sortu zen. Baina Donibane Lohizunen hazi eta Ameriketara eramango zuen kirolean, zesta-puntan, trebatu zen. AEBetatik Mexikora egin zuen jauzi, pilota mundutik poxi bat urruntzeko asmoz Euskal Herrira itzuli zen arte. Halere, berehala hasi zen Donibane Lohizuneko zesta-punta eskolan entrenatzaile.

Badira, kontuak azaldu eta ezkutuak agertzeko, hitzek baino gaitasun handiagoa duten begiradak, askotan, galderei isiltasunarekin erantzuten dakielako pertsonak. Eta indarra sumatzen duzu begi horietan, energia, gertakariz betetako bizitza baten testuinguruan, eta, imajinazioa landuz, edozer zailtasuni aurre egiteko kuraia antzematen diozu pertsonaiari. Horixe da Asier Uriberekin hizketaldi luze bat eduki oste-

ko sentsazioaren laburpentxoa. Ez da erraza berak bizitako guztia lerro gutxi batzuekin azaltzea.

Duela 47 urte sortu zen Parisen, hiru anaien artean erdikoa da, eta Frantziako hiriburuan sortzearen arrazoiak galdeturik korapiloa askatzen hasi da: «Asnières-sur-Seine Paris kanpoaldean dagoen komuna batean sortu nintzen. Aita bizkaitarra nuen, Sondikakoa, eta ama andoaindarrara, baina Nafarroako herri ttipi batekoa jatorriz, Desoio, Los Arcos ondokoa. Aita errefuxiatua zen, ihes egin behar izan zuen

frankismo garaian; amak, nola ez, jarraitu egin zion, eta bizimolde berri bat eraiki zuten sorterritik kanpo». Asierren aita Sabino Uribe zen, ETA erakunde armatuaren bost sortzaileetarik bat, duela gutxi zendua, eta berekin eramanez dituen hurbilekoei kontatu gabeko sekretuak. «Gure etxetik jende asko pasatzen zen, errefuxiatuak haiek ere, gu ttipiak ginen eta begi zabalik begiratzen genien, baina ez ginen egoten haien elkarriketak entzuten, bazkari haietan orduak eta orduak pasatzen zituzten helduek

hizketan. Oinarritzko gauzak kontatu dizkigu aitak; ez zen hiztuna alde horretatik».

Aitak ezin zuen muga pasa, eta sorterriko haizerik sentitu gabe egon zen urte luzeetan, baina familiak etxekoak hurbilago izan zitzaizkion Paristik Donibane Lohizunera hurbildu ziren Uribetarrak. «Aitaren familia ez genuen ezagutzen; gainera, ez ziren ados aitaren ideiekin eta horrek urruntasuna ekarri zuen, baina amaren aldetik Andoainen genuen familia eta hara egiten genituen joan-etorriak, aitarik gabe noski. Ni Donibane Lohizunen hazi naiz, baita anaiak ere; bertakoa naiz. Eliza ondoan bizi ginen, Tourasse karrikan, eta gaztaroko oroitzapen ilun samarrak ditut; hau da, auzoan seinalatuak geunden, autoko kristalak apurtzen zizkiguten, gurpilak zulatu, baita 'ETA hors de France' (ETA Frantziatik kanpora) zioten pegatinak itsatsi ere. Abertzaletasuna ez zegoen begi onez ikusia, eta ikastolan ibiltzen ginen gu gainera...».

Donibane Lohizuneko ikastolak berriki bete ditu 45 urte, eta Asier lehen promozioiko ikaslea zen. «Adin orotako haurrak elkarrekin geunden orduan, ikastola lehen urratsak ematen ari baitzen. Dukontenia parkearen ondoan zegoen gela bat zen gure ikastola; ez geneukan mahairik ere eta lurrean egoten ginen jarrita, orotara 15 bat ikasle». Egun, 120 bat haur daude ikastola horretan, gehienak herrian berean bizi direnak, baina Asier mintzodena garaian herri desberdinetako haurrak biltzen ziren Donibane Lohizunen. «Jende asko ahalegindu zen ikastolak martxan jartzeko, eta zailtasun ugari izan zituzten: eraikina lortzea, legeak... Gu tokiz toki ibili ginen hastapean; Dukonteniatik Harriet-Baitara joan ginen, eta, gero, Quartier de Lac auzora. Hendaiaikoak eta Baionakoak elkartuta seigarren maila arteko ikastola irekitzea lortu zen; gu 8 ginen, eta akordatzen naiz neska batek utzi zuela ikastola, eta legeak erraten zuenez 7ko gelarik ezin zela egin, urtebetez ezin izan genuela hirugarren maila eman. Ondotik Kanbon ireki zen maila guztiak segurtatzen zituen ikastola. Oroi-


tzen naiz nola Marie-Jose Basurco idazlea Volkswagen kamioneta baten gidari Hendaiatik ateratzen zen, gu Donibanen jaso eta hara eramateko, berak egiten zuen bazkaria eta gero bueltan ekartzen gintuen etxera».

ZESTA-PUNTAKO PROFESIONALA

Ikastolatik Sainte Marie eskola frantsesera pasa zen Asier, eta kosta egin zitzaion integratzea; halere, aurrez egindako lagunekin heldu zion bere bizitzako pasio eta ofizio izan denari, pilotari, zehazki zesta-puntari. «Ikastolan egin nituen bi lagun hurbileko, Idoeta anaiak, Gaizka eta Zuria. Haien aita ere errefuxiatua zen, Jesus Idoeta, abokatua, kultur munduarekin lotura handiak zeuzkana. Oroitzen dut Oteizarekin arrano beltzaren xedean ibili zela adibidez. Hark eramaten gintuen harat eta honat. Dantza ikastaroetan apuntatu gintuen, baina ez ginen batere dantzari onak eta pilotaren mundura eramantzen gero. Zesta-puntan jokatzeko ikasi genuen, eta Zuria eta ni Frantziako txapeldun izan ginen; gainera, eman ziguten medailaren ordezkariak txapel bat egin zigun, 'Txapeldunak' idatzizarekin, polita izan zen hori».

Zesta-puntarekin hasi bazen... hasi zen, hau da, gaur arteko bidean ondoan izan du xistera handia, eta puntista ona izan zela erratea gutxi da bere bilakaera ikusita: Donibane Lohizunen jokatzeko hasi zenak AEBetan eta Mexikon amaitu zuen bere karrera, profesional gisa. «15 bat urte neuzkalarik argi neukan puntista bezala aritu nahi nuela, bestalde, frontoi anitz zeuden Ameriketako herrialdeetan garai hartan; gaur egun bi baino ez dira gelditzen. Hemen eskolak zeuzkaten amerikarrek, beraiek ordaintzen zuten entrenatzailea, materiala... dena. Eta niri, 18 urterekin suertatu zitzaidan aukera, eskola horietako arduradun batek kontratu bat proposatu baitzidan».

Gazterik, ausardiaz jokatu zuen Asierrek, etorkizunaren galderei erantzuteko intentziorik gabe, eta, Lapurdin lotura anitz bazituen ere, aukera baliatzeko deliberoa hartu zuen. «Urtebeterako kontratua neukan, eta aben-



Bere bizitzako pasioari loturik jarraitzen du Asier Uribek. Isabelle MIQUELESTORENA

tura bat bezala bizi nahi nuen. Hamabost frontoi zeuden, gehienak Floridan, eta besteak Rhode Island, eta Connecticuten. Han jokatzeko gurekin, kinieletan. Zortzi bikote ginen eta tanto batera ziren partidak. Txandaka aritzen ginen, eta behin zortzi bikoteak pasata tantoak bikoitza balio zuen; zortzira iristea zen xedea». Hori entzun eta soldataren berri galdegin diogu. «Ongi irabazten genuen, garai hartarako dezente, nahiz eta zergak kentzen zitzaizkion gero. Baina 1988 zen eta nire soldata 2.300 dolar ingurukoa zen; gero, kinieletan irabazitakoarekin beste 1.000 dolar gehitzen genizkion».

Missouri estatuko bigarren hiri garrantzitsuenean sortu zen lehen frontoia, Saint Louisen, 1904an. Mende bereko 70eko hamarkadan sekulako booma bizi izan zuen Jai Alai bezala ezagutzen den jokoak, eta ohikoa zen jende ezaguna ikustea milaka zaleren artean eserita: John Travolta, Paul Newman edo Ernest Hemingway, adibidez. 1975eko abenduaren 27an Miamiako fron-

toian ikusle errekorra izan zen, 15.500 elkartu ondoan, baina ohikoa zen 6.000-8.000 lagun biltzea. Modako tokiak bihurtu ziren frontoiak. Pilotariak bilduko zituen IJAPA elkarteak sortu zuten, ehun inguru ziren. Baina 80ko hamarkada erditsutan beherakada etorri zen, eta 1988an hiru urte iraun zuen grebak AEB osora zabal zitekeen kirola ezerezera kondenatu zuen. «Ni AEBetara iritsi nintzen urte berean izan zen greba hori, eta oroitzen dut frontoiak Rhode Island, Florida eta Connecticuten egotearen arrazoia legeak zirela, apustuak baimenduak baitziren estatu horietan. Las Vegasen ere egon zen frontoi bat, baita Nevadako Renon ere. Gaur egun Miami eta Danian daude gelditzen diren biak. Jokatzeko tokatu zitzaizkidan niri, eta partida asko frontoi itxiarekin jokatu ziren, apustuen sistema bertan behera ez zedin gelditu. Badago pelikula bat garai hartako errealtatea biziki ongi erakusten duena, 'Jai Alai Blues, frontoiko kontakizun bat'». Gorka Bilbao eta Zigor Etxebarriak

Ikastolatik Sainte Marie eskola frantsesera pasa zen Asier, eta integratzea kosta egin zitzaion. Halere, lagunekin bere bizitzako pasio eta ofizio izan den zesta-puntari heldu zion

Pilotatik pixka bat urruntzeko desiraz itzuli zen Ameriketatik. Baina lehen tentaldian lehengora itzuli eta Donibane Lohizuneko zesta-puntako eskolan lan egiten hasi zen

izan nuen. Diru aldetik, halere, izugarria zen poltsikora eramaten genuena. Salinas de Gortari- ren agintaldia zen, korrupzioak zipriztindutako presidentea; pegoa eta dolarra parez pare zeuden, eta, jakina, ez genuen zerga edo halakorik ordaintzen, material guztia doan geneukan... Etxera 1997an itzuli nintzen, belauna xehatua neukala, eta pilotatik pixka bat urruntzeko desiraz».

Baina ez zen hala izan, barnean zeukan harrak ahalmen gehiago zeukan buruko pinpirinek baino, eta lehengora itzuli zen lehen tentaldian, Donibane Lohizunen zesta-puntako eskolan lan egitera. «Hilabete gutxi neramatzan hemen, eta ez zegoen zesta-punta eskolarik; beraz, entrenatzaile izateko eskaintza luzatu zidaten. Frantses izena zeukan elkarte bat bazen, eta beti politikaren erdigu- nean kokatua zen pilota. Bazen Gaztenak ere, Amerikako interesetarako ari zen eskola. Eta Chistera ere sortu zuten, beste elkarte bat. Hala, gure buruari erra- ten genion: Donibanen ezin dira hiru elkarte egon! Horrela, elkar- ritzketaren bidea ireki genuen, baina Chisterak ez zela sartuko erran zuen eta Luzaz Gazte sortu genuen. Azkenik, denak elkartu gara eta orain Luzean da Doniba- ne Lohizuneko zesta-punta esko- la. 8 eta 16 urte bitarteko 60 bat haur daude, eta pala, joko garbi eta halakoekin 300 orotara».

Euskal Herriko xistera klubaren (www.xistera.eus) koordinatzaile ere bada Uribe Ipar Euskal Herrian. Lan itzela egiten du haurrekin. Eritasun arraro bat duen semea du, Kepa. Mukobisizidosis du, eta Asier eta bere emazte Anne-Mari- ekin urtero antolatzen dute jaialdi bat gaitz hori dutenen alde Donibane Lohizunen, ehunka pertsona giro onean biltzeaz gain, etekin handiak biltzen dituen premia dutenentzat. •

Jon Garmendia